Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 37051 ZG6KT-79CLS-5493N 1FAD3B4AEE692619A36B9D11782A41D5A515C11C) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento no requiere firmas. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1



Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 36836 6X80Y-UWU9V-EXCPT 29B047BE279225912F446BCA217892D028872D53) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1

Ayuntamiento de BARRUNDIA (ÁLAVA) — BARRUNDIAKO Udala (ARABA)

# NAFARROA OINEZ FUNDAZIOAREN ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Ozaetan,

## BILDURIK

Alde batetik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udalaren Alkate-Udalburua izanik, beronen izenean eta ordez diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Eta bestetik, Josu Reparaz Leiza jauna (NAN: 29410534 V) Nafarroa Oinez Fundazioaren (IFZ: G71302871) administratzailea izanik, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Alde biak hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

## AURREKARIAK

*LEHENA.-* Aurten, Andra Mari Ikastolak 2023ko Nafarroa Oinez antolatzeko ardura hartu du, berau 2023ko urriaren 08an ospatuko da.

*BIGARRENA.-* Nafarroa Oinez antolatzearen irabaziak honako arlo hauetara bideratuko dira:

.- *Euskararen arnasgune*: Gaur egun euskararen erabilera moteltzen ari dela ikusita, gero eta estrategikoa da euskararen arnasguneetan dauden ikastolen lana, eta gero eta garrantzitsuagoa da Nafarroan euskalkia bizi-bizia duten herrien eredua. Euskararen bultzada apaldu da, eta horretan Andra Mari Ikastolak zirikatzaile izan nahi du.

.- Izaera Publikoa: Sekula baino gehiago, ikastolen izaera Publikoa aldarrikatzen da. Proiektu herrikoia da, kooperatiboa, autogestionatua, eta auzolanean oinarritua. Era berean, proiektu anitza eta inklusiboa da.

.- Hezkuntza-proiektu eraldatzailea: Andra Mari Ikastola belaunaldien arteko kateari eusten dion komunitate sendoa da. Ikastola gaur egungo ikasleen aitona-amonek sortu zuten, eta gaur egungo gurasoak ikasle ohiak dira. Kalitatezko hezkuntza-proiektu eraldatzailea izateko sortu zen, eta enbor beretik jarraitzen da.

Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 37051 ZG6KT-79CLS-5493N 1FAD3B4AEE692619A36B9D11782A41D5A515C11C) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento no requiere firmas. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1





Esta es una copia impresa del documento electrónico (Ref: 36836 6X80Y-UWU9V-EXCPT 29B047BE279225912F446BCA217892D0028872D53) generada con la aplicación informática Firmadoc. El documento está FIRMADO. Mediante el código de verificación puede comprobar la validez de la firma electrónica de los documentos firmados en la dirección web: https://udalenegoitza.araba.eus/portal/verificarDocumentos.do?pes_cod=-2&ent_id=12&idioma=1


Ayuntamiento de BARRUNDIA (ÁLAVA) | BARRUNDIAKO Udala (ARABA)

.- Obrak: Aldarrikapen horiek egiteaz gain, festa hau baliatuko dugu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eraikinean hobekuntzak egiteko. Bide batez esanda, Andra Mari Ikastolak biltzen dituen herrietan dagoen DBHko eraikin bakarra. Eraikina 1965ekoa da, gabezia nabarmenak ditu. Batetik, irisgarritasun arazoak ditu, eta horiek konpontzeko igogailu bat eta arrapala bat egiteko asmoa dago. Bestetik, eraikinak isolamendu eskasa du, eta jasangarritasun energetikoa hobetzeko lanak behar ditu: teilatua eta paretak isolatu, eta leiho berri batzuk jarri. Berogailu sistema ere aldatu nahi da, efizientegoa izan dadin. Eta, amaitzeko, aldagelak eta dutxak ere hobetu behar dira.

*HIRUGARRENA.-* Jaiaren helburua, *Nafarroa osoan euskara* eta euskal kulturaren hedapena da.

Honenbestez, Barrundiako Udalak eta Nafarroa Oinez Fundazioa erakundeak jarraian adierazitako hitzarmena sinatzen dute.

## HITZARKINAK

*LEHENA.-* Nafarroa Oinez Fundazioak Nafarroa osoan euskararen normalkuntza prozesurako urratsak egin ditu eta ahal duen neurrian, Euskal Herria mailan (azken honek *gure udalerriari eragiten dio*).

*BIGARRENA.-* Nafarroa Oinez Fundazioak *Euskararen normalizazio-prozesuan*, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduntzeko erremintak inplementatu ditu.

*HIRUGARRENA.-* Barrundiako Udalak Nafarroa Oinez Fundazioak erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 300,00 eurotako dirulaguntza luzatuko du (2023ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.003 partida).

*LAUGARRENA.-* Nafarroa Oinez Fundazioak gizarte segurantzaren ordainketak eguneratuta dituela frogatu du, halaber, ogasunean.

Aurrenekoa ikusita, alde biek adostasuna frogatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

ALKATEA

NAFARROA OINEZ FUNDAZIOA

Josu Reparaz Leiza

29140534V JESUS MARIA REPARAZ (R: G71302871)

Firmado digitalmente por 29140534V JESUS MARIA REPARAZ (R: G71302871)
Fecha: 2023.02.02 11:38:29 +01'00'